



## Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

### TENISA

#### 1.- ADIN MAILAK ETA APLIKAZIO EREMUA

ADIN MAILA	JAIOTURTEA	SEXUA	<u>APLIKAZIO EREMUA</u>
<i>BENJAMINAK</i>	2008-2009	Neskak eta mutilak	Lurraldekoa
<i>KIMUAK</i>	2006-2007	Neskak eta mutilak	Lurraldekoa
<i>HAURRAK</i>	2004-2005	Neskak eta mutilak	Lurraldekoa/A. Erkidegokoa
<i>KADETEAK</i>	2002-2003	Neskak eta mutilak	Lurraldekoa / A. Erkidegoen artekoa

#### 2.- JOKATZEKO SISTEMAK.

Bi fase izango ditu: 1. fasea urriaren 1etik lehiaketak hasi eta abenduaren 31ra arte izango da; 2. fasea, berriz, ekainaren 2. asteburura arte izango da –haurren kategorian izan ezik, kategoria horretan BI finalistek EUSKADIKO ESKOLA LEHIAKETETAN parte hartu beharko baitute dagokien garaian

Lehenengo fasea partida bakarrean, bi partidatan edo Round Robin edo Round Robin bikoitza jokatu da, talde kopuruaren arabera.

Zortzi jokalaririk onenak sailkatuko dira.

2. fasea talde bakoitzeko zortzi jokalaria onenek jokatu dute, "amerikar" Round Robin erara, hots, denek denek aurka –arau hau aldatu egin ahal izango da Round Robin bikoitza erara, behar izanez gero–, eta txapelduna partida gehien irabazten dituen jokalaria izango da. Berdinketa izanez gero, hauxe izango da lehena: joko gehien dituen, irabazitako eta galdutako jokoen arteko aldea atera ondoren. Berdinez gero, PUNTUAZIO izeneko atala aplikatu da, eta berriz ere berdinketa egonez gero, partida bat jokatu beharko da berdinketa hausteko.

FINALISTEK, bai emakumeek bai gizonek –edo lesionatuz gero, HAURREN kategoriako sailkapenean hurrengo postuan daudenek– Arabako lurralde historikoa ordezkatu dute EUSKADIKO Eskola Lehiaketetan.



### **3.- JOKALEKUA.**

Jokalekua Espainiako Tenis Federazioak tenis arauetan zehaztu duena izango da.

### **4.- BOLAK**

Teniseko bola homologatuak erabiliko dira, eta Arabako Tenis Federazioak ipiniko ditu

### **5.- JOKALARIAK.**

Taldeek 8na jokalaria eduki beharko dituzte gutxienez koadro bakoitzean. Gutxiago baldin badaude Round Robin edo Round Robin bikoitza ezarriko da  
DAGOKIEN KATEGORIAN baizik ezin izango dute izena eman.

### **6.- TENIS PISTAK.**

Ikastetxeek eta klubek adierazitako pistak erabiliko dira, eta Arabako Tenis Federazioak oniritzia emango die, homologatze aldera.

### **7.- TENIS PISTAK ESKATZEA.**

Parte hartu nahi duen ikastetxeren batek tenis pistarik ez badu, Arabako Tenis Federazioak laguntza emango dio, eta, horretarako, harremanetan jarriko du ikastetxe horri pista utz diezaioketen erakundeekin edo klubekin.

Partidak jokatzeko erabili nahi den tenis pista Arabako Tenis Federazioari eskatu behar zaionean, eskaera hori aldez aurretik egin beharko da; hain zuzen ere, pista erabili nahi den hila hasi baino 30 egun lehenago. Geroago egiten bada, ez da bermatzen pistarik izango denik.

### **8.- EPAI ARBITROA.**

Epai arbitro bat edo Arabako Tenis Federazioko arduradun bat egongo da lehiaketen egunean. Komenigarritzat jotzen bada, bakarra izango da, eta arau hauetako batzuk aldatzeko ahalmena izango du.



## **9.- PARTIDEN IRAUPENA.**

### Benjaminen maila

Partidak bi set labor batekoak izango dira (4 joko); eta 1 setetan berdinduz gero, bat-bateko heriotza aplikatuko da; partidak ez du 45 minututik gora joko, hasieratik kontaktzen hasita, berotzeko ariketak barne hartuta.

Beroketa 5 minutukoa izango da gehienez (arau hau zorrotz aplikatuko da).

Jokalariak botea egin ahal izango du sakea egitean.

### Kimuen maila

Partidak bi setekoak izango dira, eta 1 setetan berdinduz gero, bat-bateko heriotza aplikatuko da; partidak ez du 60 minututik gora joko, hasieratik kontaktzen hasita, berotzeko ariketak barne hartuta.

Beroketa 5 minutukoa izango da gehienez (arau hau zorrotz aplikatuko da).

### Infantilen maila

Partidak bi setekoak izango dira, eta 1 setetan berdinduz gero, bat-bateko heriotza aplikatuko da; partidak ez du 60 minututik gora joko, hasieratik kontaktzen hasita, berotzeko ariketak barne hartuta.

Beroketa 5 minutukoa izango da gehienez (arau hau zorrotz aplikatuko da).

**EUSKADIKO ESKOLA LEHIAKETETAN ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO** ordezkariak izateko sailkatzen direnak ez dira klub baten ordezkartzan arituko, ikasten duten ikastetxearen ordezkartzan baizik.

### Kadeteen maila

Partidak bi setekoak izango dira eta 1 setetan berdinduz gero, super bat-bateko heriotza aplikatuko da (10 puntu); partidak ez du 60 minututik gora joko, hasieratik kontaktzen hasita, berotzeko ariketak barne hartuta.

Beroketa 5 minutukoa izango da gehienez (arau hau zorrotz aplikatuko da).

**OHARRA.-** Arduradunak, iraupena dela-eta partidak lehiaketa luza dezakeela ikusten badu, partida eten ahal izango du; horrela bada, une horretan markagailuan puntu gehien duen horixe izango da irabazlea. Dena dela, ahal dela, ahalegina egingo du bi jokoko aldea egon dadin, edo, berdinketa izanez gero, bat-bateko heriotza aplikatuko du.

## **10.- IZENA EMATEKO EPEA ETA TXAPELKETAREN HASIERA.**

ARABAKO ESKOLA KIROLEKO JARDUERA PROGRAMAN XEDATUTAKOA

## **11.- JOKALEKUAK.**

Inskribatutako ikastetxe guztiek jokaleku bat edo gehiago eduki edo aurkeztu beharko dituzte, betiere, Espainiako Tennis Federazioaren arauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte; dena dela, Arabako Tennis Federazioak berraztertuko ditu baldintza horiek .



## **12.- JOKATZEKO ORDENA.**

Jokalekuak zehaztu ondoren, Arabako Tennis Federazioak “JOKATZEKO ORDENA” finkatuko du; eta Arabako Tennis Federazioaren web orrian iragarriko du horren berri, asteazkenean, edo, hala ezin badu, hurrengo egun baliiodunean; horretarako, faxa edota korreo elektronikoa bidali ahal izango du hala nahi duen klubera edo ikastetxera.

## **13.- PARTIDETARA EZ AGERTZEA.**

Adierazitako ordua igaro eta 10 minutu emango dira jokalariai itzaroteko; denbora hori igaro ondoren W.O. aplikatuko da

## **14.- PUNTUAZIOA.**

Irabazleak bi puntu lortuko ditu; galtzaileak, berriz, puntu bat; eta w.o. edo partidara agertu ez denak, bat ere ez.

## **15.- PARTIDEN ORDUTEGIA.**

Ordutegiak antolatzerakoan, ikastetxeen eta klubuen instalazioak noiz dauden libre edo erabiltzeko moduan begiratuko da; eta larunbata izango da lehiaketak egiteko egunik egokiena. Dena dela, igandea erreserbako eguna izan daiteke, eguraldi txarra egiten duenerako.

## **16.- PARTIDEN ORDUTEGIA ALDATZEA.**

Ezinbesteko kasua dela-eta klub edo ikastetxeren batek ezin baditu dagozkion partidak antolatu, berehala jakinaraziko dio Arabako Tennis Federazioari, partidak hasi aurretik. Hala, bada, Federazioak klubaren edo ikastetxearen arduradunari adieraziko dio, eta klubek edo ikastetxeek jakinaren gainean jarriko dituzte tartean dauden jokalariai.

Arau hori bete ezik, Diziplina Araubidea ezarriko da, hain zuzen, PARTIDETARA EZ AGERTZEARi buruzko artikulua.

## **17.- PARTIDEN EMAITZAK.**

Partiden emaitzen arduradunak Arabako Tennis Federazioari adieraziko dio, lehiaketaren ondoko lehen egun baliioduneko 19:30ak iritsi aurretik. Jakinarazpen hori Arabako Tennis Federazioaren lokaletara bidaliko da (Zerkabarren kalea, 5. zk., Kirol etxea) edo [falavatenis@hotmail.es](mailto:falavatenis@hotmail.es) korreo elektronikora

## **18.- ASEGURUAK.**

Arabako Foru Aldundiak honako aseguru motak egingo dizkie Eskola Kiroleko programetan aurreikusitako kirol jarduerara guztietako parte hartzaileei:



- a) Osasun laguntzako aseguruua, parte hartzaileak beste arrazoi batengatik osasun laguntzarako eskubiderik ez badu. Horren onuraduna izateko, kirol ekintza hasi baino lehenago eskatu beharko du, eskaera hori agiri bidez justifikatuz.
- b) Erantzukizun zibileko aseguruua.
- c) Kalte-ordainak jasotzeko aseguruua: galera anatomikoak edo funtzionalak daudenean, edota parte hartzailearen heriotzan, aseguruaren legeriak baimentzen dituen kasuetan.

Eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko edozein sistematan parte hartzen duten guztiek, b) eta c) ataletan eskatutako estaldura bermatzen dien aseguru poliza bat edukiko dute.

Eskola Kiroleko Kanpainako partaidetza sistemaren batean inskribatuta dauden erakundeek ezaugarrien berri eman beharko diete parte hartzaileei eta, bereziki, adingabekoen legezko ordezkariari. Era berean, arreta berezia jarri beharko dute aseguruaren estaldura sisteman, ikaslea inskribatuta dagoen erakundearen antolakuntzako ezaugarrietan eta egiten den kirol jarduera osorik ezagutzeko interesgarriak izan daitezkeen bestelako datuetan.

## 19.- ARAUZ AURKAKO IZEN EMATEAK.

Ikastetxeak edo klubak arduratuko dira jokalaria dagokien kategorian inskribatzeaz; bestela, jokalaria kanporatuta geratuko da, eta jokaturako partida guztiak galdu dituela joko da, partidetara agertzen ez denean aplikatzen den arauari jarraiki; horrez gain, ezin izango da aurkeztu bere kategorian eskola kiroleko aurtengo kanpaina osoan.

## 20.- DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria

## 21.- AZKEN XEDAPENA.

Lehiaketa honetan, joko arauak hertsiki aplikatzea gomendatzen da indarkeriazko edo kiroltasunaren kontrako portaerekin loturiko gai guztietan. Alderdi teknikoei edo erregelei dagokienez, berriz, esku zabalagoa izatea gomendatzen da, lehiaketa hutsezko irizpideak baino gehiago irizpide pedagogikoak erabiliz.

ARAUDI HONETAN EZARRI EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK ARABAKO TENIS FEDERAZIOAREN IRIZPIDEARI JARRAIKI EBATZIKO DIRA.

ARAUDIA	Benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.
Joko denbora (beroketa ariketak barne -5 minutu-)	45 minutu (benjaminak), 60 minutu (kimuak), 60 minutu (haurrak) eta 60 minutu (kadeteak)



Jokalekuen zozketa	Jokalarien erabakia
Joko baterako puntuazioa	Espainiako Tenis Federazioaren arauak
Set baterako puntuazioa	Benjaminak (bi set laburra, 4 joko) Kimuak (6 jokoko bi set) Infantilak (6 jokoko bi set) Kadeteak (6 jokoko bi set).
Berdinketa izanez gero	Bat-bateko heriotza
Zerbitzua	Bote batean egin daiteke (benjaminak); boterik gabe (gainerako adin mailak).
Partidetara ez agertzea	<b>W.O.</b> (4-0), (6-0), (4-0,4-0), (6-0,6-0)
1. fasea	“Koadroen” sistema, partidu bakarra, partidu bikoitza edo Round Robin edo Round Robin bikoitza
2. fasea	“Amerikarra” Round Robin edo Round Robin bikoitza, denek denen aurka.
EUSKADIKO Eskola Lehiaketarako sailkatutakoak (haurrak)	Bi mutil eta bi neska.
Puntuak	Irabazleak, bi puntu; galtzaileak, puntu bat; aurkeztu ez denak, zero.